

ALEGITXOAK

Lapurra ta txakurra.—Lapur bat beiñola etxe ondo batera urreratu zan, zeozer ostu ta eroateko asmu; eta, ain zuzen be, lenngo maillan aurkitu ebana txakur bat izan zan, ate ertzean zain. Zaunkaz asiko yakolakotan, saklean eroian ogi-zatia jaurti eutsan, bada-espadan.

Bertatik jaso eban txakurrak botataka ogi-zatia, ta, gizonagan begiak josirik, oso neurritsu dirautso:

—Ona eldu azanean giza-erailletzat jo aut; baiña, orain zio ta errazoi barik ni zuritu naita abillen ezker, ugazabari dei egitera naioak, nor azan ta zelako asmu atorren jakin dagian.

*Gaiztoen berba on,
naiz erreguak,
beti dira kontuz
jasotekuak.*

* * *

Emakumeak eta ixillekoa.—Astuna antza ixilla gordetzea, batez be andra maratillentzat; ba-dira, orraitño, gizonen artean be min-zoltxoak.

Senar bat bein, oian egoala, bere emaztea ario orretan noraitño eltzen zan jakitearren, dei-oiuka asi zan:

—Ipar biguna! Zer da au? Ezin dot gei-ago! Ler egin bearrean nago! Ai, zer da au! Arrautza bat ez dot ba ipiñi!...

—Arrautza bat?

—Bai, enetxo, or daukazu: hero-bero oin-diñokarren. Ez egiozu iñori esan, bestelan oilloa deituko leuskide.

Emazteak ez ekian olango gauzarik, eta siñistu egin eutsan; gaiñera, zeru ta lurragaitik ez eutsola iñori olakorik esango; baiña zin-egite ta agintzak gau illunagaz batera uxatu ziran. Egundu zaneko, emazte txatxalea oia itxi ta ariñeketan joan zan aukoko lagunagana.

Eta, pozarren, etxera biurtu zan itzontzia.

Bestea, oster, irrikatzen egoan jakin eban barria zabaltzeko, eta bere-alakoan asi zan etxerik etxe zabaltzen; baiña, arrautz bateren orde, iru zirala esanik. Eta etziran irutan gelditu, beste txaldan batek, ba, ixilka mixilka, lau zirala iñoan.

Eta, era onetan, geituz joiazan gizonak jarritako arrautzak. Errondua? Gau illunak miendi ta soloak maindira baltzez es-tali orduko, arako arrautzak eunetik gora ugaritu zirala.

* * *

Agurea ta bere semeak.—Aitu eziñik bizi ziran anai batzuk; aitak, barriz, ez eban au ondo ikusten, eta bere semeak zentzundun egin naiean, bide onetatik jokatu eban.

Basora joan eta urretx-zarta edo agetxo pillo andia-ekarri eban; gero, txorta batean loturik zarta guztiok, bere semeai esan eutsen apurtzeko, al ba'eben. Saiatu ziran, baiña alperrik!

Agureak orduan, urretx-xorta arturik, azkatu ebazan agetxo guztiak, eta banan-banan, erre, danak ausi.

—Ona emen —zirautsen—: alkar ondo arturik, batuta bizi ba'zarie, iñok be etzaitue azpiratuko; baiña zuon artean bana-kuntza ta etsaigoa errejiñ hada, kaltegarri dakitzue ta etzarie ezer izango.

Bat izatetik indarra sortzen.

